

## IKASTETXEETAN ERE LAIKOTASUNAREN EGUNA ABENDUAREN 9an

Kaixo lankideak:

Gutun honen bidez, Hezkuntza Laikoa elkartetik, **laikotasunaren aldeko aldarria** zabaldu eta gogorarazi nahi dugu. Ekitatea eta gizarte-kohesioa lortzeko, ezinbestekoa da, besteak beste, laikotasunaren printzipioak errespetatzea. Gizarte demokratiko batean, Estatuak neutrala izan beharko luke kontzientzia- eta erlijio-aukeren aurrean. Erlijio-sinesmenen irakaskuntza, proselitismoa eta doktrinamendua famili-esparruan, elizetan edo kultu-lekuetan egin beharko litzateke, eta horren finantzazioa eliza edo erlijio-elkarte bakoitzari lekioko.

**1905eko abenduaren 9an** Frantziako Estatuak kontzientzia askatasuna bermatuko zuen legea onartu zuen, **eliza eta estatua banatzeari buruzko legea** (*Loi du 9 décembre 1905 concernant la séparation des Églises et de l'État*). Frantziatz aparte, badaude munduan laikotasun-eredu diren beste estatu batzuk, hala nola Uruguai. Baina Espainiako konstituzioak estatua akonfesionala dela esan arren (*Inolako sineskerak ez du estatu seinurik izango*), errealitatea oso bestelakoa da.

**1979ko Konkordatuak** —Espainiako estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko akordioak—, frankismo garaian Eliza katolikoari emandako pribilegioak mantendu eta sendotu zituen. Erlijio katolikoko ikastetxeek, ikasgaiak eta irakasleek, gure hezkuntza-sisteman dituzten pribilegioak, beraz, diktaduraren nazionalkatolizismoan dute jatorria.

Gainera, Vatikanoarekin dituzten akordioak indargabetu beharrean, Espainiako estatuak 1992an, ordezkari musulmanekin, ebanjelikoekin eta judutarrekin, akordioak sinatu zituen, hezkuntza-sisteman aipatutako erlijio-ikasgaiak eskaintzeko derrigortasuna ere ekarri duten akordioak.

Gaur egun, hezkuntzaren arloan, **agintaritzak erlijio-soek dituzten pribilegio horiek** honelaxe gauzatzen dira:

- Ikastetxe erlijiosoak diru publikoarekin finantziazten dira.
- Ikastetxe publikoetan erlijio konfesionalaren irakaskuntza diru publikoarekin ordaintzen da.
- Erlijio-irakasleak, apezpikuak edo dagokion agintaritzak erlijio-soak aukeratzen dituen arren, klaustroko kide bihurtzen dira, eta funtzionarioen lan-baldintza berberak eskuratzen dituzte, edo hobeak.
- Erlijio bakoitzaren agintaritzak zehazten du curriculuma, hau da, irakatsi beharreko edukia.
- Erlijio ikasgaia aukeratzen duten familia eta ikasleek erlijioa aukeratzen ez duten ikasleen ordutegiak eta ikasketak baldintzatzen dituzte, eta, curriculum-baliorik gabeko “beste zerbait” egitera behartzen dituzte.
- Erlijio konfesionalen “ikasgaien” ondorioz, eskola-ordu horietan ikasleak sinesmenen arabera bereizten dira.

Ikasleen eta familien sinesmenak errespetatzeak ez du esan nahi eskolak sinesmen horiek zabaldu, eta, modu konfesionalan, ezagutarazi behar dituenik. **Erlijioak eskolan badu bere lekua:** Historia, Artea, Filosofia... eta, lehen hezkuntzan, Ingurumena bezalako arloetan lantzen dira, norberaren sinesmenak direnak direla.

Horregatik guztiagatik, **hezkuntza laikoa aldarrikatzen dugu**, norberaren sinesmenak errespetatuko dituen hezkuntza, eta erlijioen pribilegioak onartuko ez dituen hezkuntza. Vatikanoarekin indarrean dauden akordioak bertan behera geratzeko garaia da!



Hezkuntza Laikoa elkarte

## TAMBIÉN EN LOS CENTROS ESCOLARES DÍA DE LA LAICIDAD EL 9 DE DICIEMBRE

Hola compañeras/os:

Con esta carta, desde la asociación Hezkuntza Laikoa, queremos difundir y recordar la **reivindicación por la laicidad**. Para lograr la equidad y la cohesión social es imprescindible, entre otros, el respeto a los principios de laicidad. En una sociedad democrática, el Estado debería ser neutral ante las opciones de conciencia y de religión. La enseñanza, proselitismo y adoctrinamiento de las creencias religiosas debería hacerse en el ámbito familiar, en las iglesias o en los lugares de culto, cuya financiación debería corresponder a cada iglesia o comunidad religiosa.

**El 9 de diciembre de 1905** el Estado francés aprobó la ley que garantiza la libertad de conciencia, la **ley sobre la separación de la iglesia y el Estado** (*Loi du 9 décembre 1905 concernant la séparation des Églises et de l'État*). Además de Francia, hay otros estados del mundo que son ejemplo de laicidad, como Uruguay. Pero aunque la constitución española diga que el Estado es aconfesional (*Ninguna confesión tendrá carácter estatal*), la realidad es muy distinta.

**El Concordato de 1979**, acuerdo entre el Estado español y la Santa Sede, mantuvo y consolidó los privilegios concedidos a la Iglesia católica durante el franquismo. Los privilegios de los centros de religión católica, la asignatura de religión católica y sus profesores/as, en nuestro sistema educativo, tienen, pues, su origen en el nacionalcatolicismo de la dictadura.

Además, lejos de derogar sus acuerdos con el Vaticano, el Estado español firmó en 1992, con representantes musulmanes, evangélicos y judíos, acuerdos que han supuesto también la obligatoriedad de ofrecer en el sistema educativo las citadas materias de religión.

En la actualidad, **estos privilegios que las autoridades religiosas poseen** en materia educativa se materializan en:

- Los colegios religiosos se financian con dinero público.
- En los centros públicos la enseñanza de la religión confesional se paga con dinero público.
- El profesorado de religión, aunque es elegido por el obispo o la autoridad religiosa correspondiente, pasa a formar parte del claustro y adquiere las mismas o mejores condiciones laborales que los funcionarios.
- El currículo, es decir, el contenido a impartir, lo determina la autoridad de cada religión.
- Las familias y alumnado que eligen la asignatura de religión condicionan los horarios y estudios del alumnado que no opta por la de religión y le obliga a hacer "otra cosa" sin valor curricular.
- Las "asignaturas" de las religiones confesionales hacen que en estas horas lectivas los alumnos se diferencien por creencias.

El respeto a las creencias del alumnado y de las familias no significa que la escuela deba difundir dichas creencias ni que deba darlas a conocer de forma confesional. **La religión tiene su espacio en la escuela:** Historia, Arte, Filosofía... y en primaria se trabajan en áreas como Conocimiento del medio, sean cuales sean las creencias de cada cual.

Por todo ello, **reivindicamos la educación laica**, una educación que respete las propias creencias y que no acepte los privilegios de las religiones. ¡Es hora de suspender los acuerdos vigentes con el Vaticano!



Hezkuntza Laikoa elkartea